

# KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuko oinarrizko gastuak aplikazioa sortzea eta publizitatea dira. Aplikazioa sortzeko, aplikazioak sortzeko plataforma batez baliatuko gara: Mobincube. Plataforma honek doan edo prezio merke baten truke gure aplikazio ideala sortzeko aukera ematen digu, funtzionamendu pertsonalizatu bat emateko aukera emanez. Gure kasuan, sortutako aplikazioak erabiltzailearen kokapen geografikoaren arabera elkartuko ditu pertsonak, beraz, erabiltzailearen bizilekua edo/eta lantokia edo eskola jakitea behar beharrezkoak izango dira.

Gure aplikazioaren lan nagusia distantziaren arabera eta zaletasunen arabera erlazio berri baten bila dabiltzan erabiltzaile oro kontaktuan jartzea izango da, eta horretan oinarrituta sortuko dugu aplikazioa.

Bestalde, gure beste gastu nagusia publizitatea da. Sare sozialen munduan influentzia handiko pertsonekin kontaktuarriko ginateke, gure proiektua eta helburuak azalduz eta honi buruz beraien profiletan hitz egitea proposatuz. Horren truke, dirua emango zaie.

